



Maiatzaren 8an hasiko da da Udabarria Bertsoan sailkapen fasea

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea maiatzeko egunetan jokatu da. Zortzi saio izango dira guztira, lau egunetan: egun berean bi saio jokatu dira, herri ezberdinetan. Saioetako sarrerak bertsozale.eus atarian daude eskuragai.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa jokatu da aurten, baina aurretik sailkapen fasea izango da udaberria: Udabarria Bertsoan. Maiatzaren 8 eta 29 artean zortzi saio jokatu dira, ostegunero 18:30ean, bi herri ezberdinetan. 48 bertsolarik eman dute izena, eta horietatik, gutxienez, hogeik lortuko dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkatzea.

Urtero legez, Bizkaiko eskualde guztietara heltzea du helburu txapelketak, eta, hori horrela, herrialdearen luze zabalean egongo dira saioak. Maiatzaren 8an izango dira lehen bi saioak, Munitibarren

eta Bakion; hurrengo ostegunean, maiatzaren 15ean Balmasedan eta Orozkon izango dira saioak; maiatzaren 22an Ermuan eta Basaurin; eta, azkenik, maiatzaren 29an Gautegiz Arteagan eta Plentzian. Azken egun honetan ezagutuko da A eta B multzoetatik sailkatutakoen zerrenda.

Saioetako sarrerak eskuragarri daude bertsozale.eus atarian. Saioetako txarteldegian ere, egongo da eskuratzeko aukera. Informazio guztia, bertsozale.eus webgunean dago, baita Bizkaiko Bertsozale Elkartearen sare sozialetan ere.

Multzoa	Eguna	Herria	Lekua
A	Mai.8	Munitibar	Probalekuko auditoria
	Mai.15	Balmaseda	Areto Nagusia
	Mai.22	Ermua	Lobiano kultur gunea
	Mai.29	G.Arteaga	Udal aretoa
B	Mai.8	Bakio	Txakolingunea
	Mai.15	Orozko	Donibane aretoa
	Mai.22	Basauri	Ibaigane kultur aretoa
	Mai.29	Plentzia	Goñi portal



AGIN LABURU REZOLA

ASTIGARRAGA. 2025-IV-04

KRONIKA EGUNKARIAREN 25. URTEURRENA

Doinua: *Horra sei bertso kale I*

Kubako gerra edo
fueroak biba!
Orain eolikoak
atzo COVIDa
aldia egon arren
hizkitik hizkira
erreka honek dauka
berezko dizdira
Kronikara tira
erantsi satira
hain zuzen hori da
Urumea gira.
Hitz lauz bezela bertsoz
kontatu dira. (bis)

Maiatzeko egunetan izango dira Udabarria Bertsoan ekimeneko saioak. //XDZ.

Nafarroa Garaiko bertsolaritza ikertzeko deialdia abiarazi du Bertsozale Elkartek

4.000 euroko diru-laguntza esleituko zaio hautatzen den ikerketa proiektuari, eta ikertzaile, edo ikertzaile taldeak, urtebeteko epean gauzatu beharko du proiektua. Ekainaren 10erako aurkeztu behar dira lanak.

Nafarroako bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa sustatzeko deialdia jarri du martxan Bertsozale Elkartek. Edozein jakintza esparru oinarri hartuta egin beharko da ikerketa, beti ere Nafarroa Garaian gauzatzen den (edo gauzatu den) bertsolaritza ikertzea helburu. Gradu amaierako ikerketa proiektuak, master amaierako ikerketa proiektuak zein bestelako ikerketa proiektu monografikoak aurkeztu daitezke deialdira, beti ere unibertsitateko irakasle doktore baten zuzendaritzak bermatuta badira. Ekainaren 10erako aurkeztu behar dira proiektuak, www.bertsozale.eus atarian dagoen eskaera orria beteta eta bidalita, eskatutako dokumentazioarekin batera. Ikerketan edo

bertsolaritzan aditu diren hainbat lagunek osatutako batzordeak ekainaren 20a baino lehen jakinaraziko du zein izan den proiektu hautatua. Hortik aurrera, urtebeteko epea izango du ikerlariak, edo ikertzaile taldeak, proiektua gauzatu eta ikerketa lana aurkezteko. Horretarako, 4.000 euroko diru-poltsa bat jasoko du.

Deialdi honen bitartez, Nafarroa Garaiko bertsolaritzari buruzko ikerketa eragiteaz gain, ikertzaile gazteak edo hasiberriak lehen urratsak ematen lagundu nahi ditu Bertsozale Elkartek.

Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian duzue.

Gasteizko Pinto pintto taldeak irabazi du Arabako Kuadrillartekoa

14 taldek parte hartu dute Kuadrillartekoan eta horietako bakoitza hamaika lagun ez osatuta egon da; 100 entzuletik gora batu dira finalean.

14 bertso egun eta lau finalerdiren ostean iritsi zen Arabako Kuadrillartekoaren finala: Gasteizen izan zen, apirilaren 5ean. Goizean, plazaz plaza aritu ziren kantuan txartela lortua zuten lau taldeak: Lautadako 4 gara, Gasteizko Pinto pintto, Aiaraldeko Altubepekoak eta Gorbeialdeko Arlobiko bardoak. Epaileen erabakiz, Arlobiko bardoak eta Pinto pintto taldeak pasatu ziren bazkalosteko finalera.

100 lagunetik gora elkartu ziren finala entzuten. Pinto pintto taldetik Amaia Iturriotz, Ekaitz Samaniego, Eli Zaldua, Paula

Amilburu eta Xabier Antia aritu ziren kantuan; Arlobiko bardoetatik, berriz, Aitor Jimenez, Gari Sarriugarte, Irati Anda eta Manu Bendala. Aurkezle lanak Eli Plazaolak egin zituen, eta gai-jartzen Irati Martinez aritu ziren.

Bertsoaldi ohikoago zein bereziagoak kantatu zituzten bertsolariek, eta ariketa guztien ostean, epaileen lana etorri zen: Ainhoa Aizpurua, Egoitz Iradier, Ekaitz Elorriaga, Endika Jimenez eta Maria Izaga arduratu ziren lan horretaz. Azkenean, Pinto pintto taldea garaile 2025eko Arabako Kuadrillartekoan.



Pinto pintto taldeko kideak, saria jasotzen. //XDZ

Jexux Mari Irazu: "Bertsoa zuzenean eta lekuan bertan bizitzea ezin da ordezkatu"

'Bertsolaritza Adimen Artifizialaren Aroan' ikerketa lana egin du Jexux Mari Irazu bertsoa.eus-eko arduradun eta bertsolariak. Gaiak bete-betean eragingo dio bertsolaritzari ere, eta ardura horretatik garatu du HUHEZIKo Euskal Kulturaren Eragiletzan master bukaerako lana.

Adimen Artifizialaren aroan gaude. Badator ez, etorri da. Adimen Artifiziala da Youtuben zer ikusi proposatzen diguna, BERRIAN artikuluei ahotsa jartzen diena, autoko GPSan bide bat edo bestea hartu proposatzen diguna... Eta bertsolaritzan zer leku du? Eta bertsoak AAn? Dagoeneko gai da bertsoak transkribatzeko. Eta, trebatuz gero, hori zein beste hamaika gauza egiteko gai izango da. Gaiak zirika egiten zion Jexux Mari Irazuri eta ikertzea erabaki du; baina geroz eta ardura gehiagoz bizi du Euskal Herriko Bertsozale Elkartean ere, eta horren urrutikoa zaigun baina gertu daukagun gaiaz gogoetatzeko lan saioa antolatuta gure martxoaren 29an Amasa-Villabonako Subijanan etxean.

“ Epe ertainera, ia ezin
bestean, adimen artifiziala
bertsolaritzan integratzea
tokatuko da ”

Adimen artifiziala (AA) eta bertsoa. Bi mutur dirudite, baina uste baino gertuago daude...

Bertsoa eta bertsolaritza balizko mutur askotatik daude gertu, loturak egiten asmatuz gero. Kasu honetan, adimen artifiziala gainera etorri zaigu, baita bertsolaritzan ere. Adituen ustez, 10-15 urteko perspektiban jarrita, bertsolaritzan ere oinarizkoak diren lan prozesuak, zabalkundea edo transmisioa neurri batean behintzat AAren bidez egingo dira. Horrez gain, AA oso presente dagoen testuinguruan garatuko da bertsolaritza ere, gazte eta ez hain gazteengan. Epe ertainera, ia ezin bestean, AA bertsolaritzan integratzea tokatuko da. Ona baliatu eta txarraren kalteak minimizatu beharko ditugulakoan nago.

Zer ekarpen egin diezaioke AAK bertsolaritzari? Zein aukera ikusten dizkiozu?

Lehen fase batean behintzat, irratiak, telebistak edo Internetak bertsolaritzari egin dioten ekarpenaren antzeko zerbait irudikatzen dut, baina adimen artifizialaren ezaugarrietara egokituta. Zabalkundean eta lan prozesu askotan ekarpena egin dezake.



Bertsolaritza eta adimen artifizialari buruzko ikerketa egin du Jexux Mari Irazuk. //XDZ

Gero, AA sortzailea deitzen dutena dago, informazio multzo handiei lotua. Adituen arabera posible izan daiteke bertsolaritzari buruzko ChatGpt espezializatu bat garatzea, Bertsozale Elkartearen irizpidepean. Horrek zenbait ate zabaltzen ditu.

Eta Bertsozale Elkarteari?

Nik uste Bertsozale Elkartearen hiru ardatzetan egin dezakeela bere ekarpena: bertsolaritzaren sustapenean eta zabalkundean, ikerkuntzan eta transmisioan. Antxoka Agirrek bertsolaritzaren azken 200 urteko eragiletzaren inguruko tesia egin du eta dio bertsolaritza oso bizkor ibili izan dela beti garaian garaiko euskarri teknologikoetara egokitzen: XIX. mende hasieran sartu zen bertsoa prentsan; XX. mende hasieran irratian; 60. hamarkadan telebistan; 80. hamarkadan Euskal Telebista sortu berrian; 90.ean Interneten... eta orain adimen artifiziala iritsi da. Bertsozale Elkartea gai honek ez du erabat berri harrapatzen. Telebista eta Internet gogoeta asko eragin izan dituzten gaiak izan dira Elkarte barruan eta eskarmentu hori oso lagungarria izango da AAren gaia lantzeko ere.

Hala ere, zuretzat AA behartutako aukera bat al da?

Bai, hala ikusten dute aditu askok eta hortik enfokatu beharko genuke. AA pagotxa da hizkuntza handientzat, haien neurrira egina dagoelako, ez euskara bezalako hizkuntza txikientzat. Baina Europako hizkuntza gutxituen aldeko teorikoek eta erakundeek AAren aukera baliatzeko gomendioa egiten dute, tren hori ez galtzekoa. Nik elkarriketatu ditudan hemengo adituek ere garbi ikusten dute hori. AARI adarretatik heltzea proposatzen dute eta gure neurriko AA garatzea, albo-kalteak ere izan ditzakeela onartuta.

“ Adimen artifiziala pagotxa da
hizkuntza handientzat, haien neurrira
egina dagoelako, ez euskara
bezalako hizkuntza txikientzat ”

Adimen Artifiziala gorputzik gabea da. Bertsoak, ordea, asko du gorputzetik, girotik, momentutik... ez da artifiziala. Hori erreproduzitu ahaliko du AAK?

Ez eta bai. Bertsoa zuzenean eta lekuan bertan bizitzea ezin da ordezkatu, zorionez. Ez AA bidez, ez Internet bidez eta ez telebista bidez. Bitartekoek gorputz, giro eta momentu horren hurbilpen bat eskaintzen dute, bere muga guztiekin. Baina, aldi berean, hurbilpen hori da bertsolaritza gizarteratzeko modurik zabalena, milaka eta milaka lagunengana iristeko bidea. Uste dut Elkartea hori balioan jarri izan duela beti eta jartzen duela.

Aukerak aipatu ditugu, baina arriskuak ere izango ditu. Zeintzuk?

Oraingoz ikusten diren arrisku handienak egiletza eta datuen bermeen ingurukoak dira. Ez dirudi AAK bertsolaria ordezkatzeko duenik plazan. Ezta bertsolariaren bat-bateko bertso mailara helduko denik ere. Hala diote adituek. Beste era bateko arrisku bat izan daiteke AARI haize gehiegi ematea, eta kontzienteki pertsonok egin beharreko zereginak eta ardurak AAren esku uzteko tentazioa izatea. Bertsozale Elkartea ez dut arrisku horretan ikusten.



Puntua jarrita

IRATI AGESTA LATASA

Deskuidu edo destino, Malerreka helduen bertso eskolan izena emateko kartela iritsi zitzaidan, niri zuzenduta ez zegoen mezu baten bidez. Aukera ikusi eta bakar-bakarrik agertu nintzen bertso eskolara. Iker, orduan irakasle orain lagun, bertan ezagutu genuen elkar. Gerora etorri zena inork baino hobe dakizu zuk.

Zure gisan, heldutan hasteko pausoa nola eman nuen galdetzen didate sarritan. Erantzuna aski sinplea da; gogoan nuelako pausoa eman nuen eta kitto. Seguruenik, pentsatzen hasi izan banintz, ez nintzen ausartu izanen. Izan, badelako bertso munduaren inguruko aurreiritzi indartsu bat "sartzeko bete behar diren baldintzen zerrenda" osatzen duena. Maiz ikusi dut izena eman nahiko luketen horiek nola gordetzen diren "gustatzen zait, baina ez dut balio" hitzen atzean. Hala galdetuko nieke gustura: ez duzu balio ala ez duzu uste zuretzako lekuri dagoenik? Sei urteren ondoren, argi erranen nioke zalantzan dagoen edonori: hasi eta bertze guztia ahantzi. Ondotik ikusiko duzu balio duzun edo ez, eta benetan zerk balio duen, ere bai.

Nire bizipenean, baliorik gehiena beti beso zabalik hartu izan nautela izan da; onartua sentitu izan naiz, babestua eta maitatua. Horregatik gelditu naiz bertso munduan. Nahiz eta horrek ez duen erran nahi alde ilunik ez dagoenik. Askotan daramat "berandu iritsi izanaren sindromea" itzal baten gisan nire ondoan. Konparaketen jokoan, bertzeek txikitatik jaso dituzten ikasketa eta bizipen horien faltak zalantzak pizten dituelako. Baina, azkenean, norberak bere ibilbidea gauzatu behar du, eta izan lehenago edo beranduago, bertsogintzaren parte izatea balioan jartzea da, funtsean, garrantzitsua.

Egoitz, ibilbide desberdinak izan ditugunez, hurrengo galdera erantzutea gustatuko litzaidake: Zer eskaini dizu txikitatik bertso munduari lotuta egon izanak?

Koplak

Maiatzean bilduko dugu bazkide kuota

Urtero bezala, maiatza hasieran kobratuko da Bertsozale Elkarteko bazkide kuota. 2023an egin zen azken igoera eta aurtengo Batzar Nagusian ere berdin mantentzea erabaki da: kuota 65 eurokoa da norbanakoentzat eta 130 eurokoa elkarte edo erakundeentzat.

Poto-Finixa



Apirilaren 18an izango da Haizea dator ekimenaren azken saioa

Bertsularien Lagunak elkarteko hezkuntza lan taldeak sortutako ekimena da Haizea dator, eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso-eskoletako ikasleei eta jadanik bertso-eskoletatik atera diren bertsolari gazteei kantatzeko aukera ematea du helburu. Aurten ere sei saio izan dira hiru lurraldetan, azaroan hasi zen, eta hilabete honetan izango da azkena: Baionako Epaiska elkartearen izango da, apirilaren 18an.



PUBLIZITATEA